

Enbutukrazia

TXILLARDEGI



HITZ

itsusia. Mamia itsusiago.

Baina egun hauetan, berri-
ro ere, eta N-garren aldir,
'demokraziaren' aitzeakian,
enbutukrazia proposatzen
zaigu. Edo entonaukrakzia, edo
huniukrazia, edo nahi duzuen.

Berdintasuna da Demokraziaren oinarria. Pertsonen berdintasuna, herrien berdintasuna, hizkuntzen berdintasuna. Demokrazia hauxe baita edozeren aurretik: jauntxoerian amaia.

Herrien berdintasun hori lortzeko, bide bat besterik ez dago: hetero-determinazioari utzi, eta herri bakoitzak bere buruz, bortxakeriarik gabe, bere geroa Auto-Determinazioz hauta eta gauza dezala.

Auto-Determinazioz gabe 'antolamendu juridikoak' oro, espainiar Konstituzioa barne, enbutukraziak besterik ez dira. Eta enbutukraziaren gainean desberdintasuna eraiki daiteke, inposaketa, zapalketa, eraiki daitezke. Baina ez Demokrazia.

Euskal Herriari Auto-Determinazio eskubidea ukatzen dioten alderdi politikoekin, nekez eraiki daitezke desberdintasuna eta espagnolismoa besterik. Auto-Determinazioz gabe, Hetero-Determinazioa dago. Gaurko markoan, Espainiak hartzen dituz guri dagozkigun erabakiak, Hetero-determinatuta gaudete. Eta herrien arteko desberdintasuna da 'ordenamendu juridiko' famatu horren funtsa.

Ajuria-Eneko Ituna, horretara, desberdintasunaren ziutabe zindoa besterik ez da. Demokrazia eraiki ahal izatekotan gainditu behar den baradara hutsa. Ajuria-Eneko ituna herrien arteko desberdintasunaren bermea da.

Garaia da, beraz, oso 'abertzale' omen diren eusko alderdi famatu (eta ez bakar bati, zorituraz) egia hauek gogoratzeko.

Ajuria-Eneko Ituna, Enbutukraziaren paroxismoa besterik ez da. Eta badakigu.

Ustel-kontu

INAKI SEGUOLA



MOTELLAK!

Hau duk hau ustel-usaina zabaldu dutena bazterretan: usteldura han, ustelkeria hemen. Baina zenbat ustelera da jokaldi hau? Uste osoan zudenentzat ere erdia pasa ustel. Gure exkertiari profegai berriz, Aita Santua baino xantuago beti, pozez kabitu ezinik: ongi etorki dela herria esnatzeko, eta bakarren batzuk larritik pagatu beharko dutela, gauzak bere onera etorriko badira.

Oraitxe etsiak hartua nago gizabanako informatuarekin ez dela atarramendu onik. Leherrenak eginik ere ezin sartu zaie buruan beraiek (hau da, Beraiek) puztea dela hutsa baizik ez dena. Bestela esan: komunikabide izenekoetan tarte eta laineza haundiskoa ematen dioten ezker ez dezakeela benetako funtsik izan.

Aktualitatearen zurrubiloan lausoturik ez dagoen edonork ikus lezake (fidakaizatasun sano pittin bat aski) Beraiek atera dutela platerera inork eskatu ez duen hazkurria. Jendeak beti jakin izan du behin eskalafoina goiti jo ezkerro, ez bakarren bat, ez bi, ez erdiak edo hiru laurdenak, baizik dena dela ustela, kiratsa eta gezurra; ongi uler bedi: normaltasuna, lege-barrukoa, okerrik eta akatsik gabekoa, notizia ez dena, hori berori dela besterik gabe ustela ezin gehiagoraino. Azken boladakko usteldurazko ziprintzen telebistatu hauek erakutsi nahi dutena ordea, arras besterik da: salbuespen gaitzesgarri horiek kendurik, badela normaltasun ustelgabe bat, badirela politikoz zintzoak, polizia onak, exekutibo ohargarriak, eta badela diru garbia, hau da, Dirua berez garbia dela eta Estatuia zuzena.

Ustelkeria salatzea Beraien mirabe ergel izatea da. Sistemaren deabruak eta putreak gantzeata, aingeruak eta uso xuri garbiak ongetsea da.

Ustel bitez usteltzekoak oro.

EL MUNDO

Bertso satanikoak

Horrela, bada, bukatu zen dibertsioa. Komandantea iritsi eta gelditzeko agindu zuen. Axola gutxiakoa da zein izan zen komandantea. Axolazkoa gelditzeko agindua eman zuela izan zen. ETBleko 'Hitetik horzera' saioan bertsolari gazte batzuek egiten/esaten zituztenek beldurdu zuten: intsumisoak onak zirela, presoek maitasunez hitz egiten zela eta instituzioak soberan zirela agertu zuen albistegi baten parodiak.

Gure komandanteak Erzaizantzak egurra ematen duela eta batasun abertzalearen eguzki errainua Iparrajdetik datorrela entzun



ZULET / EL DIARIO VASCO

zuen; dekoratua espafiaz pintatu zutela —«Ertzainarik ez»— ikusi zuen, baita «desinformazio gehiago izateko» Euskadi Irratia entzuteko gomendatzen zutela ere, eta esfiniera estutu egin zituzten. Bizi-bizian eta zuzenean, gelditzeko agindu zuen.

Nire buruari galdetu ere ez diot egiten, nahiz eta ohizkoa izan krimen bat ikertzen denean, no-

ren mesederako izan den komandantearen jorana, teleikuslea babetu nahi ote zuen aia bere burua salbatu. Bost axola dio horrek! Lehenengoa bada, iritzi kaskarra dauka gutaz. Bigarrena bada, bere nagusiez. Garrantzitsuenaz da zergatik egin ote duen, egin duela baizik.

Kezkatu egiten nau halako ardura duena hain gutxiagatik bel-

durtzeak (duela 40 urte eginak ditugu Jesutetan hori baino padria ausatagoak, eta hobeak). Dezezpionagarria irudituz zitaidan haien bertosen inspirazio erraxa, baina hipokrita iruditzen zait diren bezalakoak diren gazte konkretu batzuk diberti gaitzaten gonbidatzea eta pentsatzen duten esaten ez utzea.

Komandanteari une batez ahaztu omen zitzaion sistemak babestu egiten dituela era bakesuntzen defenditzen diren aukera/iritzi guztiak. Celaya serioez hartu eta bertsoetan etorkizuneg kargatutako arma ikusi zuen. Arma deabruak kargatzen dituela gogoratu zuen eta eskomikua eskapatu zitzaion.

Nolatan ezer aurpegitari? Mundua hain polita geratzen baitzaigu gustukoa duguna bakarrik ikusten eta entzuten denean!

MARIANO FERRER

ZUZENDARIARI

Gaztetxea eta alkatea

Goiz hartan desalajatu zuten espalditrik geurea izan genuen Gaztetxea, gazteak oso haserre geunden eta zuzenean Udaletxera jo genuen bertan herriaren alkate deritzon Bitorian aurkituko genukeelakoan eta baita hala izan ere. Lehenengo aldirian 'herriko polizia' deritzonak, atera gintuzten bertatik eta ez modu onean noski, bertan geunden ehun pertsona indarrez eta kolpeka atzetzen. «Existimos porque insistimos» esaldiarekin bat egin genuen tromentu hartan eta bigarren aldir Udaletxera (suposatzen da herriarena dena) jo genuen eta alkatearen bulegoan tropelean sartu ginen 40 bat pertsona, kanpoan 250 bat gazte aurkitzen zirelarik. Bertan, Bitorianok ez zuela polizia indar errepresiboa Udaletxe baruan somatu esan zigun, ez zela horretaz arduratzen eta Udaltzaingoaren informea (manipulatu) eskatuko zuela. Hau ez genuen sinistu, alkatearen despatxok kristalera bat bai dauka (miopea ote da?).

Bertan ordubete inguru egon ginen elkarri trapu zikinak botetz, tentsioa eta nerbioak agirian zebiltzala (guztione partetik). Alkateak, lehenengo aldir aurrez aurre gaztzen eritzi, kritika eta desprezioa entzun behar izan zuen.

—Gaztediaren mobidaz pasatu du. Herriaren aurrean eskuak eta musu garbitu ditu eta bitartez epaile eta apaizekin tejanmanjetan ibili da, bertako Gazteak kalean ikusteko desiatzen. Bi aurrez baino gehiago dituen pertsona bat, ez al da zikinok?

—Udaletxetik ostiaka aterata beraren mutur aurrean. Hori ukatzen duen pertsona bat ez ote da gizarterua?

— Beraien politika barnean mugitzen ez diren pertsonak marginatu eta zapalzen dituen pertsona bat, ez ote da faszista?

Hau dena eta gehiago, zeren 'gure' alkate inteligente eta sabioa ere ez zen ixilik egon, beraren ahotik ere irten zen 'lotsagabe' hitza, bertan zegoen pertsona bati zuzendua.

Honekin zera argitu nahi dugu, Alkatezatz 7 pertsona denuntziatu zituen epaitegian inzulioengatik, bertan deklaratzera joan ginelarik. Orain dela gutxi alkateak akusazio partikularra erretiratu du, noski! jakinean egonda ministerio fiskalak aurrera eramango zuela akusazioa. Desde luego, tontoa ez da, ez!! Urtebeteko arrestoa eta 100.000 pztako isuna eskatzen die bi pertsonei (fiskalak) antezedentez ez daukatenez libre geldituko dira baina kartzelan dagoen pertsona bati hiru urteko zigorra eta 250.000 pztako isuna eskatzen diote. Guri pertsonalki isuna ez zaigu ardua, baina, bai kartzelan dagoen lagun horrena. 'Gure' alkate sabio eta inteligenteari ez dio buruhausterik sortuko sistema hontan integratzerik nahi ez dugun herriko bizilagunak haresien artean edukitze-rik.

Bukatzeke; juizioa izango dugu eta ezartzen zaigun delitua insulto hauek esatea omen da: zikinok, faszista, lotsabako, gezurtero.

Alkate inteligente eta sabio honi, bost pezetako hitzak bihotzean min, hiru pertsona kartzelara beraren botereagatik.

Non daude gazteak eskubideak? Hau al da zuen demokrazia?

BERGARAKO GAZTE ASANBLADA

Gorilak ETBko lainopean

Joan den ostegunean ETBko bertso-saioan gertatu zena ikusi ondoren, derrepente dituz nuen EGUNKARIA gertatu zenaren informazio zabalagoa irakurti nahiko nuela esateko. Gaur goizean, oraindik nire luma batezuez betierik zegoenez, ordenadorearen tekla hotozak nahiago izan ditut lerro hauek idazteko.

Idatzi honen izenburuaren arazoarik bakarrik emango ditut hemen, iruzkin zabalagoak egingo dituenik izango da eta.

Ruandako gorilak famatu egin zituen filme hartatik hartu ditut ideia eta paralelismo pare bat ekarri nahi izan dit hona.

Batek, ETBn gorila edo bizkartzain ezkutu esku beltzak sumatu nituen aipatutako saio-zati horretan. Ez dakit zerengatik edo nozerengatik babesten gintuzten. Gorila horien eskuak mozturik nahiago ditut ikusi Ruandako haienak baino eta adierazpen-askatasunari eskainitako bulego batean disekaturik.

Bestetik, gogora etorri zitzaidan filme hartan gertatutako pasarte bat. Protagonistaren begiko gorila bai hiri ondoren, barrabaskena batzuk egin zituenean eta laguntzile-taldek buruak kontra egin zionean hala gelditu zion: «Zu noren alde zaud?» eta erantzun: «Madeduiselle, badakizu beti zure alde izango nauzula, baina gaur zuregatik lotsa sentitu dut».

Ezaguena da nik ETBngatik dena begirunea, errespetu eta lankidetzeta, baina nik ere lotsa sentitu nuen artz.

MARTXEL AIZPURUA
Zarautz (Gipuzkoa)

GAIA JARRITA



Nafarroaren Eguna

Bereizten gaituen mendia edo lotzen gaituen kordela, herri bakarra hizkuntz bakarra ta anaiarte epela. Baigorritarrak loturak lotzen jarrai zazute horrela, nahiz eta beti gu erabili etsai bagina bezala, jaio orduko ikasi gendun anai bixikiak ginela.

MANOLO AROZENA

Egunkaria

Batzord. Parakeidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90



OJOK IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria: INAKI URIA

Gerentia: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: MARXEL OTAMENDI

Zuzendariordeak: LUZIZEN ETXEZAHARRETA

Publizitateak: MARI JOSE SARASA

Espainiarik Publizitateak: PUBLICITAS

Capitan Haya 1.2.a 28020 Madrid // 91 555 11 11 / Fax: 91 556 29 29

HELBIDEAK

Erredakzioa eta Telleria: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabliko / 20160 Lasarte-Oria // 37 15 45 / Fax: 38 54 93

Egiltza soziala, Publizitate eta Administrazioa: Oriko Jakituna, 16-1 / 20010 Donostia // 46 90 22 / Fax: 45 59 57

Araba: San Antonio, 20-1. Leher. / 01005 Gasteiz // 23 38 72 / Fax: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Iruiziti dorrea) / 31011 Iruña // 17 80 78 79 / Fax: 17 80 77

Bizkaia: Zabaltzu Enparantza, 2-1. Leher. / 48003 Bilbo // 410 40 46 / Fax: 410 37 15

Lapurre / Nafarroa Beherea / Zuberoa: Pannecau 14, 1 / 503 Posta Kutxatua, / 64100 Baiona // 59 59 35 75 / Fax: 59 25 75 11